

2012-04-24ko UDALBATZA OHIZKOA

Iruran, bi mila eta hamabigarren urteko apirilaren hogeita lauan, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-BILDU udal-taldekoak: Gorka Murua Makuso, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainara Mugica Iruretagoyena, Josu Yurrita Loitegui eta Tomas Etxeberria Sarasola..

-EAJ/PNV udal-taldekoa: Javier Izaguirre Gomez.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak ireki du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2012-03-27).- 2012ko martxoaren 27ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

- 2012ko 40tik 49 zenbakira bitartekoak.

HIRUGARREN GAIA

“IRURAKO UDALAREN JAZARPEN ALORREKO GATAZKAK ETA BESTELAKO ARRISKU PSIKOSOSIALAK AURREIKUSI ETA KONPONTZEKO JARDUERA-PROTOKOLOARI” HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.- Irurako Udalean jazarpen alorreko gatazkak eta bestelako arrisku psikosozialak aurreikusi eta konpontzeko jarduera-protokoloa aurkeztu da.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari Buruzko Batzorde Informatiboak aldeko proposamena egin du gaur egindako bileran.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez hau erabaki du :

Lehena.- Hasiera batean ontzat ematea araudi hau.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta interesdunei audientzia ematea, 30 egun balioduneko epean.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik edo iradokizunik ez badago, akordioa behin betikotzat joko da, eta indarrean dagoen legedia beteko da.

Akordio hau tramiteko erabakia da.

LAUGARREN GAIA

2012. EKITALDIRAKO TOLOMENDIREN EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.- Udalbatzak aho batez onartu du 2012 urterako Tolomendiri egin beharreko 2.518,50 euroko ekarpena.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

BOSGARREN GAIA

2012. EKITALDIRAKO TOLOSALDEKO GARAPEN IRAUNKORREKO UDAL ZERBITZUAK S.L.-REN EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.- 2012 urterako Tolosaldeko Garapen Iraunkorreko Udal Zerbitzuak S.L.-ri egin beharreko 10.417,38 euroko ekarpenaren aurkezpena egin da.

Eta hori kontuan hartuta, Udalbatzak onartu egin du, aldeko 8 botorekin (PNV) eta abstentzio 1ekin (PNV).

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

SEIGARREN GAIA

TRINKETEKO TABERNAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOA ETA BALDINTZA PLEGUAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.- Gai hau mahai gainean utzi da aho batez.

ZAZPIGARREN GAIA

IZAN FUNDAZIOAREN DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.- Izan fundazioak eskaera bat aurkeztu du, "Gizakia Helburu" eta "Norbera" programetarako diru-laguntza eskatuz.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatiboak aldeko proposamena egin du 2012ko martxoaren 6an egindako bileran.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez erabaki du 110 euroko diru-laguntza ematea eta ordaintzea.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

ZORTZIGARREN GAIA

"FONDO FORMACIÓN" FUNDAZIOARI DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.- "Fondo Formación" fundazioaren Gainditzen tailerra burutu da Iruran 2011ko urrian, azaroan eta abenduan prestazio ekonomikoak jasotzen ari ziren herritarrekin.

Fundazio honek diru-laguntza bidez bideratu ditu beti tailerrak. Azkenekoan, Jaurlaritzatik %100 beharrean % 80 besterik ez diete eman.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatiboak aldeko proposamena egin du 2012ko martxoaren 6an egindako bileran.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez erabaki du 200 euroko diru-laguntza ematea eta ordaintzea.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

BEDERATZIGARREN GAIA

IRURA ETA ANOETAKO IKASTOLEI “GURASOENTZAKO GIDA” PRESTATZEKO DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.- Irura eta Anoetako ikastolek bizikidetza gaia lantzerakoan “Gurasoentzako Gida” prestatu dute, gatazkei irtenbide aukerak emanaz. Irurako Udalak aurrekontuaren laurdena jartzea, 775,55 € hain zuzen ere, proposatu da.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatiboak aldeko proposamena egin du 2012ko martxoaren 6an egindako bileran.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez erabaki du ekarpen hori egitea.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

HAMARGARREN GAIA

KIROL ASTEA 2012 ANTOLATZEKO AURREKONTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.- Aurten ere, hirugarren urtez, Irurako Udalak Kirol Astea antolatuko du apirilaren 24tik 29ra, eta bere egitura eta aurrekontua aurkeztu da, 4.500 € hain zuzen ere.

Kultura eta Euskara Batzorde Informatiboak aldeko proposamena egin du 2012ko apirilaren 17an egindako bileran.

Hori dela eta Udalbatzak aho batez onartu du.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

HAMAIKAGARREN GAIA

EUSKARA BATZORDE INFORMATIBOA SORTZEKO AKORDIOAREN PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.- Kultura eta Euskara Batzorde Informatiboak proposamen hau aurkeztu du 2012ko apirilaren 17an egindako bileran: Euskara Batzorde Informatiboa sortzea.

Hori dela eta, Udalbatzak akordio hau hartu du:

Euskara Batzorde Informatiboa sortzea.

Kideak:

Bildutik: Noelia Lataburu Ortiz, Gorka Murua Macuso, Ainara Múgica Iruretagoyena.

EAJ/PNV-tik: Javier Izaguirre Gomez.

Batzordeburu: Noelia Lataburu Ortiz.

Teknikaria: Idoia Olano Goikoetxea.

Maiztasuna: Hamabost egunez behin, ostegunetan, 09:00etan.

Akordio hau behin betikoa administrazio bidean.

HAMABIGARREN GAIA

“TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE” KOORDINAKUNDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.- .-
“Tolosaldea Osasun Publikoaren alde” koordinakundeak mozio hau aurkeztu du:

“2011ko azaroa ezkeroztik Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak TOLOSALDERAKO OSASUN ARRETA EREDU BERRIA inposatu digu herritarroi. Proiektu berri honetan, Izaskungo Ama Espezialitateetako Anbulatorio publikoa ixteko erabakia hartzen da, espezialitate guztiak Asunción Klinika pribatu-kontzertatuaren esku geratuko direlarik. Horren ondorioz osasun sistema publikoa kaltetu eta ahulduta geldituko da Tolosan zein Tolosaldean, Andoainen eta Legorretan.

Bestetik, Tolosaldea da sare publikoko eskualde Ospitale Publikoa ez duen Euskal Herriko eskualde bakarra, eta egitasmo honekin horrela jarraituko du.

Tolosaldeko eskualdeak indar eta pisu demografiko nahikoa du, herritarroi egokia izango zaigun kalitatezko zerbitzu bat eskainiko digun ESKUALDE OSPITALE PUBLIKOA izateko. Beste eskualdeetan bezalaxe.

Hori guztiagatik mozio hau aurkezten da Irurako udalaren Osoko Bilkuran, honako hau ONAR DEZAN:

Mozio honen edukia hau izango da:

- 1.- Asunción Klinikaren publikazioa eskatzen dugu. Eskualdeak kudeaketa erabat publikoko Eskualdeko Ospitale Publikoa izan dezan.
- 2.- Osasun zerbitzu honek, beste eskualdeetan eskaintzen denaren mailako kalitatea bermatzea eskatzen dugu.
- 3.- Afera honek eragiten dien alde guztien artean (Osasun Saila, langileen ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundia, eskualde horretako udalak, plataformaren ordezkariak) alderdi anitzeko mahaia osatzea eskatzen dugu. Mahai honek definituko duen klinikaren publikazioa (epeak, zerbitzua hobetzeko eta garatzeko plana, langileen subrogazio zein erregulaziorako bidea).
- 4.- Mahai honek publikazioa egiteko moduaren gaineko akordioa eskuratu beharko du lehenbailehen. Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzak sinatutako konbenioaren ondorioz hartzen ari den neurri guztiak bertan behera utz ditzala eskatzen dugu: espezialitateen ambulatorioa hustea horren adibide.
- 5.- Klinikaren egitura enpresarialak egindako balizko iruzurra keta legez kanpokoak ikertzea.”

Hori dela eta, Udaltzarak mozioa onartu du aldeko 8 botorekin (Bildu) eta aurkako boto 1ekin (PNV).

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

HAMAHIRUGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Ez da galde-erregurik egon.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:45ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari gisa dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA